

Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta

Luis M. Larringan & Itziar Idiazabal
UPV/EHU

1. AURKEZPEN HITZAK

Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren artean aldea edo jautzia dago. Hamaika gauza esan eta idatzi dira alde horiei buruz. Halaber hizkeraren eta idazkeraren funtzioei buruz ere. Halaz ere, eta orain arteko horiek zalantzan ipini gabe, beharrezkoa zaiguke alde horien zenbait alderdi gehiago sakontzea eta ondorioak ateratzea. Horretan lagundu nahi lukete ondorengo lerroek. Hasteko, adibidea emango dugu:

A

(/) baakit askotan / galderekin hastia zuzenean ez dela izaten erraza orduan ba / nik eh aurrena // baa 10 minutuz eo gutxiagoz ba gauza txiki bat // esango dizuet gauza txiki bat kontatuko dizuet // eta // gauza txiki hori kontatuta geo ba ikusiko dea aterako det halako ondoriyo bat halako moraleja txiki bat aterako det / eta handikan aurrea ba pixka bat zuei utziko dizuet hitza ezta? /// esango nuke // nere iritiz / mundu hontan dena sekretua da eo garrantzia duen / dana o gehiena sekretua da // eta jakin egin behar dugu sekretu horiyek geureganatzen da sekretu horiyek asmatzen // eta hoi erakusteko / hain zuzen ere dena sekretua dela erakusteko nik orain hemen jarriko dizuet / kanta oso txikiya // seguruasko ba ezagutuko duzuen ez dakit ezagutzen duzuen kanta txiki bat // euskaraz // gutxi gorabehera esaten duena... (B.A.)

B

(/) badakit askotan galderekin hastea zuzenean ez dela izaten erraza; orduan, aurrena, gauza txiki bat esango dizuet, 10 minutuz edo gutxiagoz, eta ondoren halako ondorio edo moraleja bat aterako det. Gero zuei utziko dizuet hitza. Nere iritiz mundu honetan dena sekretua da, garrantzia duen / dena da sekretua; halatan jakin egin behar dugu sekretu horiek asmatzen eta geureganatzen. Eta horretarako, hots, dena sekretua dela erakusteko nik orain kanta txiki bat jarriko dizuet euskaraz; ez dakit ezagutzen duzuen, seguruasko bai. Gutxi gorabehera honela esaten du...

Lehenengo zutabea, audioz eta bideoz grabatutako testuaren transkripzio bat ematen da. Bigarrean, irakurle arrunt batek espero lukeena edo ematen da. A adibideko transkripzioak esandakoarengandik hurbilago dirudi, hots, gordinagoa dirudi;

bigarreanean ñabardura gutxiago jaso dugula antzeman daiteke. Alde horiek derrigorezko orraztuñoaren ondorio dira. Areago, aldeak handiagoak lirateke (A zutabeko) transkripzioetik audio zintara joko bagenu. Audio zintan paperean agertzen ez diren hamaika ñabardura antzemango genituzke. Eta askoz ñabardura eta xehetasun gehiago bideo zintan. Gauzak horrela, pertsona arrunt batek A zutabeko transkripzioa bere gordinean irakurriko balu, transkribatutako hori “gaizki idatzita” dagoela esango luke, hizkuntza hori “gaiztoa” dela. Edo kalitate urrikoa. Edota desegokia. Edo... horrelako zerbait. A zutabeko testua euskaldun batek egingo dela, onartu, onartzen dugu, baina pentsatuko dugu testu hori (A zutabea) gutxienez “gaizki” idatzita dagoela beste zutabeko (B zutabeko) zerbait espero dugulako. Izan ere, hizkuntza idatzia- ren testuingurua eta ahozkoarena nahiko bestelakoak dira. Hitz egitea ez da idatziz mintzatzea. Ondorioz, bi erabilera horien arteko aldeak ugariak eta maila ezberdinetakoak dira: fonetikoak, sintaktikoak, informazio mailakoak, komunikazio mailakoak, produkzio mailakoak. Eta abar. Kazetariak eta estilo zuzena erabiltzen dutenean ez dituzte normalean ahozko hizkeran erabilitako elementu asko eta asko jasotzen. Eta idazkeraren oinarriak menperatzen dituzten idazleek, badakite ezinbestekoa dela hiztunak esandakoa apaintzea edo hiztunak esan ez dituen elementuekin hornitzea, esan duen hori, beterik gabe, ondo ulertu ahal izateko. Bestalde, badakigu transkripzio- ziorik onenak ere nekez isla dezakeela informazioa komunikatzeko garrantzi handia daukaten hamaika gauza.

Gure aldetik, ahozko hizkuntzaren hiru alderdi edo ezaugarri ekarri nahi ditugu. Honako hauek: errepikapenak eta erredundantziak, hizkuntza idatzian “lorrintzat edo usteltzat” jotzen diren baina hizkuntza mintzatuan sarri asko gertatzen diren “eraikuntza edo erabilera gaiztoak”, eta, azkenik, hanka-sartze eta erroreak. Gure esatekoak gogoetak dira, esan nahi da, ez direla ikerketa zehatz eta zuzen baten ondorio, gogoan darabiltzagun kontuak baino. Nolanahi ere badute oinarri sendorik eta enpirikorik, euskaraz emaniko hainbat hitzaldi, mintzajardun, hizketaldi, ... grabatu, transkribatu eta aztertu baititugu.

2. ERREPIKAPENAK ETA ERREDUNDANTZIAK

Errepikapenak eta erredundantziak gertaera arruntak dira ahozko hizkeran. Elementu horiekin gehiegi kezkatzen ez den batek, eta hiztunak nola esan nahi duen jakin nahiko ez lukeen norbaitek, ziur asko nahiago luke errepikapen horiek kentzea (goiko adibidean, eskuineko zutabea, alegia), hau da, ezkerreko zutabea eskuineko moduko batera itzuliko luke, beti ere testuaren edukia, zer esan nahi izan duen edo eduki semantikoa, errazago uler eta aztertu ahal izateko. Eta arrazoi bat baino gehiago du horretarako, besteak beste, mezua antolatzekeko modu propioa duela ahozko hizkuntzak nola idatzizkoak.

“Repeticiones, Paráfrasis, deícticos, hiperónimos o comodines contribuyen a configurar algo especialmente característico del uso oral: la baja densidad léxica”. (Perera, 1984; Tusón (1997)-tik hartua).

Nolanahi ere, errepikapen eta erredundantzia guztiak ez dira maila eta garrantzi berekoak. Batzuek hizkuntza petral eta ahul baten lagin nabarmenak dira. Beste batzuk ez, ostera. Horregatik edo, kontu honetan bada benetako arriskua, lastoa baz-

tertu guran alea ere galtzeko arriskua hain justu, zeren eta errepikapen horien balio eta funtzioa, errepika gordin horien azpian dagoen esanahia baino urrunago baitoa.

Esan dugunez, errepikapen guztiak ez dira zaku berekoak. Luzzati (1998) autoreak hiru mota eta 11 errepika-figura bereizten ditu. Gure aldetik errepikapen zehatz bati egingo diogu arreta: egitura parataktiko eta koordinatuz (alborakuntza eta juntadura bidez) osatutakoei. Eta hauxe da gure proposamen-gogoeta: errepikapenak adierazi baten adierazle ere izan daitezkeela, alde batetik, eta bestetik, errepikapena ahozko hizkuntzaren nolakotasuna definitzeko elementua dugula.

Esan bezala, kide biko egitura parataktiko eta koordinatuei egingo diegu arretagunea, hots, bi atalez edo osagai (A eta B) osatutakoei. Egitura horiek honela transkribatu ditugu: egitura markatzeko < > ikurrak erabiliko ditugu; osagaiak edo atalak, hots, A eta B, markatzeko, berriz, I ikurra baliatuko dugu. Era berean / edo // ikurrak etena adierazten du, laburragoa (/) edo luzeagoa(//).

Ekar ditzagun adibide batzuk.

- (1) < eta esan nuen ez / nundik dator fama hau ez I nundik dator fama hau / ez/> (J.M.K.)

A

B

- (2) gauza txiki hori kontatuta gero ba ikusiko degu <aterako det halako ondoriyo bat I halako moraleja txiki bat aterako det> (B.A.)

A

B

- (3) < // begira txantxangorria da / txori bat // beti gordeta egoten dana // I

A

txantxangorria ez dugu inoiz ikusten> (B.A.)

B

- (4) < // ez dakit / nik beti / erizpidea galdetzen didatenean / nik gomen datzen det // norberak gehien gustatzen zaiona aukeratzea / I jakina /

A

baldin badaki / zer gustatzen zaion / norberak gehien gustatzen zaiona / hartzea// > (GB.E)

B

Ikus daitekeenez:

- Batzuetan, (1) adibidean esaterako, zati berbera errepikatzen da; ez da inolako ezberdintasun formalik.
- Beste batzuetan, A atalaren eta B atalaren artean nolabaiteko aldaketa errepara daiteke formari dagokionean, (2) eta (3) adibideetan esaterako.
- (4) adibidean, ez dago formazko aldaketarik, nahiz eta errepikatutako atalaren eta haren aurrekariaren artean, hots, A eta B-ren artean, beste elementu bat tartekatzen den.
- Errepikatzen diren edo erredundante diren bi atalen artean badago beti ere nolabaiteko erlazio logiko bat.

Zenbaitetan, esan bezala, A eta B-ren artean aldaketa gertatzen da formaren aldetik, (3) adibidean kasurako. Holakoetan bidezkoa da ondoko galdera: esanahiari dagokionean, baliokideak ote dira bi atal horiek? Baliokidetasunaren arabera, bi (azpi)multzoz berez daitezke: parafrafiakoa eta kontrakarrefakoa...

a) Erlazio parafrasikoa.

Bi atalen arteko esanahia nahikoa antzekoa da, ezer gutxi aldatzen baita. Adibidez, (2) eta (4), edota beste adibide hirukote hau:

- (5) < /eta hor / ba bueno / teknikoak daude eta beti esaten daue jo ez bota ez badakizue lurra zelakoa den / I ez bota ez dakit zer / eta beti esaten dute
A B
ba analisiak itxeko / lurraren analisiak / > (E.B.)
- (6) </ letra hau kantatzen zuela pixkat aldatuta ez?
A
I ez oso aldatuta baina pixkat aldatuta / ez? /> (B.A.)
B
- (7) // eta zer berezitasun dau?; <bazkide laguntzaileak / gehienez ere botuaren herena izan / e:::/ izan ahal izango dutela // bai? I bakarrik botuaren herena (3,) gero/> (KH)

b) Kontrakarreko erlazioa

Beste batzuetan, ostera, A eta B-ren artean nolabaiteko kontrastea edo aldea gertatzen da, nolabaiteko aurkaritza. Adibidez, (3) kasuan, edota beste hauetan:

- (8) < / eta gero // e: / jubilatzen direnean / bai? / beraien kapitala koperatiban bertan uzten dute / I ez dute eramaten beraien kapitala // > (KH)
A B
- (9) </ eta mundu guztian da /istoria hau / istoria hau ez da bakarrik euskalduna /
A
I istoria hau da Grezian eta da unibertatsala //> (B.A.)
B
- (8-9) adibideetan, A eta B atalak baliokideak dira mezuari dagokionean, baina hitz ezberdinez dago emana mezu hori, A-n esaten dena B-n errepikatzen baita baina beste hitz batzuek, edota ikuspuntua aldatuz.

Oposizio erlazioaren gertari bikainak dira esaldien arteko modalitate kontrasteak ere. Horietan, A atalean esandako zati bat B atalean errepikatua agertzen da, baina beti ere modalitatez aldatzen delarik. Batean, esaterako, galde modalitatea aurkitzen dugu; bigarren atalean, ostera, baieztapen modura azaltzen da errepikatutako zatia. Edota entzuleak esan berri duena berriz esaten du. Hala nola:

- (10)< / aldiz / zer egiten du txepetxak? // I txepetxak egiten du kontrakoa / >
A B
- (11)< / badakizue nolakoa den ajedrezko zea? // I ba ajedrezko zean ere / hau da e ajedreza / > (B.A.) A B
- (12)// esaten omen da zuk galdetu ezkeo zea bati / <sankritoz hitz egiten zuen agure haitako zar bati galdetu ezkeo zer da mundua ?
A
// esate omen tzun / mundua zer dan? / I ba hauxe da mundua / hola itten omen tzun / > (B.A.) B B

3. ERREPIKAPENEK (ETA ERREDUNDANTZIEK) HIZKETALDIAN DUTEN FUNTZIOA

Errepikapen asko huskeriatzat, makulu eta betegarritzat jotzen dira, ez baitira mezuaren esanahia ulertzeko ezinbestekoak. Hiztunak esaldi bakarrez edo laburrago esan zezakeena, sintagmak, esaldiak edo zenbait zati errepikatuz ematen du. Ahozko hizkuntzan gauzak behin eta berriro errepikatzen ditugu, esandakoa ahaztu egin zai-gulako edo pentsatzeko beta hartu nahi dugulako. Era berean, ahozko hizkuntza prozesatzeko baldintzetarik dugu denbora: pentsatzen eta aukeratzten diren heinean esaten dira hitzak. Hiztunak birformulatu egin behar izaten du behin baino gehiagotan eta behin eta berriro esandakoa, bai berak bai entzuleak esandakoaren hariari errazago jarraitzeko eta informazioa prozesatzeko nahikoa astia izateko. Horrenbestez, memoriaren mugak eta denboraren presioak sortutako eragozpenak gainditzeko joko luke hiztunak errepikapenetara. Arrazoi horiek ez ditugu okertzat joko. Baina bada beste esatekorik ere.

Errepikapenak aztertu dituztelarik, zenbait autore (Tannen (1987); T. Villamizar (1993) edo A. Álvarez (1994) funtzio erretorikoez eta poetikoez mintzatzen da. Errepikak, Tannen-en ustetan, formula erritualak sortarazteko ahalmen bat da. Berorien funtzioetariko bat hizketaldia modu eraginkorragoan, azkarragoan eta neke gutxiagorekin burutzea litzateke. Errepikapena zerbait automatikoa da, eta, aldi berean, aldagarria ere bai; horrek mezuaren ulermena erraztuko luke, berbaldiaren zama edo dentsitate semantikoa arintzen baitu. Era berean, hizketaldiaren edo diskurtsoaren kohesioa eta funtzio fatikoa ere bideratzen dituela dio. Villamizar autoreak errepikapenaren funtzio ludikoa eta poetikoa gogorarazten dizkigu; errepikapenak, zenbaitetan, diskurtsoan duen balio ikonikoa ere aipatzen du, figuraren erritmoak ekintzaren erritmoa islatzen dueneko balioa hain zuzen, honela: “iluntzen zihoan, iluntzen zihoan, iluntzen zihoan”. Nolanahi ere, autore horiek uste dute errepikapena ez dela erabile-raren ezinbesteko akatsa edo pekatua: funtzio erretoriko, poetiko eta pragmatikoez mintzatzen dira, horiek ere kontuan hartu beharreko alderdiak direla esanez.

Gure testuetara itzuliz, errepikapenei honako funtzio pragmatiko hauek errepara dakizkieke:

a) Formulazioa gauzatzeko eta moldatzeko baliabide egokiak dira errepikapena eta erredundantzia. Hasieran (A zutabean) emandako adibideak ondo ilustratzen du hemen esandakoa.

b) Berbaldiaren aitzineratze geldoagoa edo motelagoa eragiteko, hizketaldiaren arretagunea behin eta berriro mantenduz. Esan denaren errepikatzeak eta erredundantziak hitzuna eta entzulea uhin berean mantentzen ditu (Ong, 1987). Badirudi ahozko hizkuntzaren hedatzea ez dela sekuentzia linealean gauzatzten, zatika eta leihok irekiz baizik. Ahozko hizkuntza zati laburretan bidaltzen eta heltzen da. Adibidez:

(13) // begira txantxangorria da / txori bat // beti gordeta egoten dana /// txantxangorria ez dugu inoiz ikusten / ez udabarrian / ez udaran eta ez udazkenean / eta txantxangorria beti bizi izaten da jendegandikan oso urruti / baino // etortzen da aurreneko hotz handia / etortzen da aurreneko elurra / mendietara hain zuzen / egun hoietan / hoi da abenduaren 12a 13a 14a / etortzen da / elur hori eta txantxangorriak pentsatzen du (...). (B.A.)

Hor bi leihok irekigune ditugu. Eta hirugarren baten hasiera.

- 1) “begira.....oso urruti”
- 2) “baino etortzen da elur hori”
- 3) “eta txantxangorriak pentsatzen du”

c) Metahizkuntza funtzioa. Errepikapenak, izan ere, komunikazio eraginkorra-
goa eragiten du, beti ere mezuaren kodeketa eta deskodeketa errazten baitu. Honela,

- (14) / gero daude/ beno azidotasuna oso inportantea da oso garrantzitsua da / e
ardoan e? / azidotasunak ematen dio ardoari / freskotasuna /saporean
ere nabaritzen da / e usinan ere bai / garbitu egiten du ardoa / oso garran-
tzitsua da e azidotasuna/ eta /(...) (E.B.)

d) Funtzio fatikoa. Azpimarratzekoa da baita ere errepikapenen funtzio hau, esa-
tariaren eta hartzailearen artean kanal fisiko eta psikikoak luzatzen ditu eta.

e) Hanpatze funtzioa. Hona adibidea:

- (15) /u::: eta holako batean esan zuen / ba: zerbait egin behar dut ! zerbait egin
behar dut! Pentsatu zuen / pentsatu pentsatu/ (J.M.K.) .

f) Nabarmentze funtzioa. Adibidea:

- (16) // ba txepetxa da txantxangorriaren / aurkakoa erabat beste modu batera
jokatzen du / txepetxa egoten da beti jende artean / egoten da jende artean
/ udabarrian egoten da jende artean udaran eta egoten da jendeartean udaz-
kenean / baina zer gertatzen zaio aurreneko hotza / etortzian // (B. A.)

Gogora dezagun gure gogoeta: errepikapenak ahozko hizkuntzaren elementu
identifikagarriak dira; ez dira besterik gabeko elementu baztergarriak, baliabide prag-
matikoak baizik. Hau da, esanahia duten elementuak. Horrenbestez, ahozko hizkunt-
zaren zentzua atzemango bada, baliabide honek sistemaren duen efektua ere atzeman
beharko da. Ondorengo baieztapenak ez dirudi burugabekeria: uste dugu hipotesi
hauek ez direla hemen aipatu ditugun gertakarietara bakarrik mugatzen, ahozko hiz-
kuntzaren beste batzuetara ere aplikagarri izan daitezkeela.

4. BIGARREN GOGOETA

Bigarren gogoeta ahozko hizkuntzan sarri asko gertatzen diren “eraikuntza
gaiztoei” buruzkoa da. Alderdi horretatik errepikapenez bestelakoak dira. Luzzati
(1998) autoreak uste du erretorikako “eraikuntza figurez” baliatuz deskriba daitezke-
ela erabilera larri horiek. Eraikuntza gaizto horietarik ditugu, esaterako, anakolutoa
edo eraikuntzaren besterik gabeko etadura, hitz ordenaren aldaketa, etabar. Urratze-
mota ugari dago, hain zuzen. Denek ez dute sorburu bera: izan ere, batzuek eraikun-
tza figurak baino gehiago pentsamendu figurak dira. Holakoetan urratzen dena egitu-
ra sintaktikoa baino gehiago zentzuaren koherentzia da. Beste batzuek, ostera,
alderantziketa figurak dira, beraietan berezko edo unekoaren kontrako ordena edo no-
rantza gertatzen baita. Ordena sintaktikoa da holakoetan urratzen dena. Hirugarren
multzo bat mozketa figurek osatzen dute; horietan segida edo sintaxia jarraipena
urratzen da, esaldia, bapatean, moztua izan balitz bezala, bukatzen da eta. Bada lau-
garren multzo bat: hemen bilduko genituzke delako erdibana (“apokoinou”) figurak.
Beren ezaugarri nagusia hauxe da: ez da enuntziatuaren barruko rol sintaktikoen
berezketarik egiten.

Gure aldetik, bereziki bi aipatu nahi ditugu: erdibana eta silepsia izenekoak, biak ahozko hizkuntzaren ezaugarri bikaintzat jotzen baitira. Bi eraikuntzok, bestalde, ez ditugu sakon aztertuko, gure gogoetarekiko behar den heintxoan baino, hau da, ahozko hizkuntza deskribatzeko argitasunik ematen duen neurrian.

4.1. Erdibana

Erdibana (“apokoinou”) eraikuntzan, atal bat bera bi proposiziori dagokio. Jar dezagun adibide batzuk. (Oharra: erdibana segmentuak azpimarratuta daude).

- (17) / ez da azaltzen urte guztiyan eta urte hori urte zaharra bukatzeaz dijoanean / azaltzen da / urte berriarekin batera ordun bihurtu da urte berriaren sinboloa / (B.A.)
- (18) / eta sartu dute eta txantxangorriak zerikusia dauka baita ere salatu egin duela txantxangorriak ere lagundu egin du // (B.A.)
- (19) / eta inoiz mendira joaten bazarete eta ikusten baduzue hola sasi artian / sasi artian beti zerbait mugitzen dala / eta / ikusi eta da txori txiki bat eta ematen du gainera lotsatuta dagoela ematen du ba ez dakit / zerbait / platera bat puskatu duela edo zerbait holako egin duela ... (B.A.)
- (20) / nere / nere auzoan / ba: nere auzoan / zeuden (/) e: / nere auzoan / ba berro berre berrehun ionki zentrimetro (/) kuadratuko // hor eee unibertsoa ez zegoen unibertsoa ez zegoen ezer! Jainkoa bakarrik / (J.M.K.)
- (21) / Gu geu be bagoz geu be / (Geuk bildua; aitona ilobari esandakoa)

Adibide horietan azpimarratuta dagoen atalari dependentzia bikoitza errepara dakiok. (17) adibidean esaterako, “eta urte hori urte zaharra bukatzeaz dijoanean” esapidearen jarraia da; era berean, hurrengoaren “urte berriarekin batera” segmentuaren hasiera ere bada. Eta horrela beste adibideetan ere.

Erdibana eraikuntzetan ez da gramatikako araurik urratzen. Eta baldin eta arau urratze larria ez baina nolabaiteko desaraua iruditzen bazaigu, koherentzia sintaktikoaz dugun irizpidea beti ere idatzizko hizkuntzarena delako izan ohi da. Erdibana erabilerak, ahozko hizkuntzaren beraren funtzionaltasun autonomoaren irizpidetik epaitu behar ditugu. Ez dirudi bidezkoa denik idatzizko sintaxiaren lege zorrotzat eta zurrunik ahozkoari aplikatzea.

Idatzian, koherentzia sintaktikoa erabatekoa da; haren barrutia perpausa edo esaldia da, eta irizpideak, gramatikaltasuna eta onargarritasuna. Besterik gertatzen da ahozko erabilerari dagokionean: hemen, koherentzia sintaktikoa nozio erlatibo da, esan nahi dugu, ez dugula haren definiziorako marko zehatzik; ahozko esaldia, idatzizkoaz konparatuz, entitate birtuala da. Idatzizko esaldia gauzatua dago, egina, ondua; ahozkoa, beti ere enuntziarioari lotua dago. Ez dago misteriorik, erabilera bakoitzak baitu bere koherentzia.

4.2. Silepsia

Ahozko hizkuntzan komunztadura batez ere pentsamenduarekin egiten da, eta ez sintaxiarekin. Zentzu honetan, ahozko hizkuntzan barra-barra gertatzen dira ad

sensum egindako komuntzadurak, hots, silepsia erako egiturak. Deskribapen eta azterketa osoagorik merezi du gai honek, baina oraingoz gera bedi hor, gogoetagai izate horretantxe.

Eman dezagun silepsia gertakari horren adibide bat.

(22) ME. Asko hitzegiten da Europaren porrotaz / ezta?/ nola ikusten duzu Pernado kontua?

P.B. bai / Europaren porrotaz eta / e / orokorrean nazioarteko erakundeetaz / hor nik uste dut / Yugoslaviako gatazkaren aurreko fasean / ederki erakutsi egin zela / Milosevic bera e / estatu kriminal bat zela // eta horri ez zitzaion/ beharrezko neurriak aplikatu / eta ez ziren beharrezko neurriak hartu ezta ? / eta (...) eta azken finean / ba bueno / zer gertatzen den / ba nolabait elkarrizketaren porrot horren aurrean / edo presio hoi-en/ porrotaren aurrean / nolabait indar gehiago hartzen du / komunitate internazionalaren aurrean interbentzio militarrena / (GBP)

Ikus azpimarratutako sintagmak: komuntzadura ad sensum egina dago, hau da, pentsamenduari begira eta ez sintaxiaren bitartez.

Bistan dago, hemendik ere ondorioetako batzuk esplizita daitezkeela ahozko hizkuntzaren erabilerari buruzkoak.

5. HIRUGARREN GOGOETA: HANKASARTZEEI ETA ERROREEI BURUZKOA

Ahozko hizkuntza, hizkuntza mendre eta ahularen parekotzat jotzen da. Akats-toki eta gramatika urraketan gertaleku paregabatzat ere bai. Besterik ezean jasan beharrekoa omen da. Esan ohi da ahozkoa naturala dela, idatzizkoa baino adierazko-rragoa, “aberatsagoa”, pertsonalagoa, askeagoa, ... Esan izan da, orobat, ahozko hizkuntza idatzia baino sinpleagoa dela, hots ez dagoela hain egituratua. Edozein modutan, gramatikalariek sarri askotan –gehienetan edo ia beti ez bada- hizkuntza idatzia hartu dute eredutzat hizkuntza eta lengoia deskribatzeko. Horren ondorioz, hainbat arazo sortzen zaio ahozkoaren deskribatzaileari.

Halaz ere, idatzitakoa ez da mintzatua baino egituratuagoa edo konplexuagoa. Ildo beretik, ahozkoa ez da idatzizkoa baino akastunagoa. Ahozko hizkuntzaren transkribapenek gutxiago egituratuak eta akastunagoak ematen badute, hori da ahozko hizkuntza “berrikusi” edo “berridatzi” gabe aurkezten dugulako. Ahozko hizkuntzak ez du “zirriborrorrik”, bapatean, ekoiztu ahal eta moduan ematen baita. Hankasartzerik edo errorerik eginez gero, ez dago atzera jotzerik, ez da esaldia aldatzerik. Holakoetan hiztunak derrigorrez aurrera egin beharra du. Ikus daitekeenez, enuntziatziara bertara jo beharra dago.

Akats eta urratu guzti horien adibideak ugariak dira. Bat aipatzearren hona horietako bat:

(23) Bueno nik esango nuke/ hor beti/ bi gauza dagoz/ beitzeko e/ bat/ nondikan diru hiri batzen dan/ e// eta nora/ diru hori eramaten dan// batu/ egingo da/ juan dan urtian bezelaxe/ aldundi bakoitzak diru gehiena/ba / ein die aldetak/ zerga batzuetan/ baino bueno/ gutxi gora behera batuko dira betiko/ beti edo/ atzenengo urtian bat dan bezela/ dirua// eta joan ere diru

hori/ aurreko urtian bezelaxe// bakarrikan orain/ haunditu dan hogeitazortzi mila ta bostehun miloi hoiek/ ba bueno badaoz hamar mila miloi/ errepideetarako dijoazela/ edo portuetarako/ edo infrastrukturako// eta nik uste det hori ona dala// eta beste bi mila eta bostehun ere/ ba dijuaz laguntza bezela/ lan kontrato berri hoieta/ bai relevo ta sustitucion/ deitzen jakona/ hoiek/ hoiei erraztasuna emateko// eta nik uste dut ba hori/ ba ondo dago/ bihar zan gauza bat da// baino/ aldaketa haundi haundi haundirikan horrek ez dut uste dakarrenik (GB.E)

Horiek horrela, komeni da ondorioetako batzuk esplizitatzea, baldintza horrek isats luzea baitu ondorio gisa. Guk hemen bi ondorio aipatuko ditugu, baina ez nolana hikoak: lehena, errorearen izaerari buruzkoa da, eta bigarrena, zuzentze moduari buruzkoa.

Errorea, idatzizko hizkuntzan, nozio estatikoa da: enuntziatu oro zuzena da edo gaiztoa, eta errorea zuzentzeko eta berridazteko aukera du hiztunak. Edota halakotzat jotzen dugu. Ahozko hizkuntzan, errorea nozio dinamikoa da: hiztunak hankasartzea eginez gero, mezua luzatuz soilik eta aurrera joaz hura zuzendu ahal du.

Ahozkoaren zuzenketak lan sintagmatikoa eskatzen du, hots, ardatz sintagmatikoan egiten dira zuzentzea eta erreparoa; idatzizko hizkuntzaren zuzentzea, ostera, lan paradigmaticoa da. Idazleak nahi duen denbora guztia izaten du bere mezua antolatatu, behar dituen hitzak aukeratu eta egiturak zuzentzeko, eta, oro har, bere idatzia ondu eta lantzeko, hariak eta komunikatu beharreko mezua emateko era egokia aurkitu arte. Besterik eta bestelakorik gertatzen zaio ahozko hizkuntzaren erabiltzaileari. Ahozko eta idatzizko hizkuntzek, modu ezberdinean funtzionatzen eta, hala errorearen tratamendua nola haren ebaluaketa, irizpide desberdinen arabera egin beharko litzateke.

Esan dezagun, azkenik, zenbait hizkuntza unitatek oso modu bestelakoan funtzionatzen duela ahozkoan eta idatzizkoan. Adibidez, nolabaiteko eragozpen bat edo egiten denean desenkusatzeko erabili ohi den “Barka; Barkatu” esapideak. Ahozkoan “eragozpenaren” atzetik behar du agertu, hura gertatu ondoren. Idatzian, beti ere kutsu ironikoa bereganatzen du, zeren hiztunak beta du hura zuzentzeko. Badira beste zenbait oposizio ere.

AIPATUTAKO ADIBIDE-ITURRIEN LABURTZAPENAK:

- J.M.K.: Jose Mari Karrere, “Bibir del Kuento” konta saioaren transkribapena
- B.A.: Bernardo Atxagaren hitzaldi baten transkribapena
- E.B.: Estibalitz Buesa: Ardo Ikastaroko hitzaldi baten transkribapena
- GB.E.: “Goizean Behin” Ekonomiaz Euskadi Irratiko Tertulia
- GB.P.: “Goizean Behin” Politikaz Euskadi Irratiko Tertulia
- K.H.: Kooperatibei buruzko Hitzaldia

BIBLIOGRAFIA

- ÁLVAREZ, A. (1994). *Lo crudo y lo cocido: variación en narraciones orales venezolanas*. Boletín Antropológico, 28. Mérida: Universidad de Los Andes.
- GARCIA-DEBANC, C. (1999). “Évaluer l’oral”, *Pratiques* 103/104, 193-212 or.

- HABE eta UZEI (Lankidetzan) (1989). *Euskara-irakaslearen eskuliburua, Glotodidaktika-zerbitzua*. Donostia.
- LUZZATI, D. (1998). “Rhétorique et description de l’oral”, *Verba* 25, 7-30.
- MOREL, M.A. (1983). “Pour une typologie des figures de rhétorique: points de vue d’hier et d’aujourd’hui”, *DRLAV* 16, 1982, 1-62.
- ONG, W.B. (1987). *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.
- TANNEN, (1987). *Repetition in conversation: Towards a poetics of talk*. *Language*, 63.
- TUSÓN, A. (1997). *Análisis de la conversación*. Barcelona: Ariel.
- VILLAMIZAR, Th.(1993). *Repetición de estructuras sintácticas en el habla rural*. *Boletín Antropológico*, 27, Mérida: Universidad de Los Andes.